



**Kultur Kale Zikloa tabernetatik kalera aterata da.**- Udalak eta Xpresionk!-ek antolatutako Kultur Kale Zikloa ekimena Okendo plazara aterata zuten larunbata arratsaldean, Low Riders taldearen kontzertuarekin. Jende ugari hurbildu zen country, blues, rock eta cow-punk doinuez gozatu asmoz, arratsalde giro epel eta goxoa aprobetxatuz. Laukote bereziak osatzen du Low Riders, laukote bitxia, internazionala. Abesten eta gitarran Marek eslovakiarra aritu zen, baxuan Karmelo zarauztarra, gitarrista bakarlarri gisa Michal txekiarra eta bateria joz Nagore zumaiarra. Batez ere, Johnny Cash, Hank Williams edota Iggy Pop ezagunen bertsioak jo zituzten larunbat arratsaldeko kontzertuan, baina aipagarria da HighTimes diskoa labean egosten ari direla abesti propioekin eta laster euren doinuak entzuteko aukera izango dela. Kultur Kale Zikloa kalera ateratzeko proposamenaz benetan harro mintzo zen Jokin Telleria Xpresionk-eko kidea, "bete-betea asmatu dugula uste dut, ekimen honen filosofia musika herritarrei gerturatzea izan da, urte osoan zehar tabernetan egindako lana ikusgarriago egin eta kontzertuak kalera ateratzea erabaki dugu". Ez da hau Kultur Kale Zikloa kalera aterako den azken aldia izango, hurrengo astean, uztailaren 20ean, Sagardotegi plazan NOS (New Orleans Sound) taldea izango da entzungai, eta hemendik bi astetara The Cottontails (Swing, Jazz), berriro ere Okendon.

#### 4 ELKARTASUNA

### Saharako haurrei ongi etorria egin die udalak

Udalak ongi etorria antolatu zien herrian uda pasako duten Saharako bost haurrei. Ostiralean egindako ekitaldi berezian euren txokoetako kideek ere parte hartu nahi zuten. Porrotx pailazoa gonbidatu zuten ere eta haur zein helduek ederki pasa zuten berarekin.



#### 5 OSPAKIZUNA

### Santa Ana azoka igandean egingo da Okendon

XXIX. artisau azokan parte hartuko duten ia 30 artisauek 10 dira herrikoak. Okendo plazan kokatuko dira uztailaren 21ean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean. Cesar Bozal herriko labangileak sukalderako aizto berezi bat egin dio Subijanari.

#### 5 KIROLA

### Herriko atleta eta triatletentzat atsedenik ez

Aurreko asteburuan, uztailak 6 eta 7an, LOKeren atletismo saileko kadeteak Espainiako txapelketan izan ziren, korrikalari herrikoiak Añorgako herri krosean eta triatletak Garaiko triatloian. Asteburu honetan, berri, Ehun Miliak eta G2Handiak probetan izan dira mendi-lasterkariak.

ESKATU ZURE BEZERO TXARTELA  
ETA  
LORTU DESKONTU INTERESGARRIAK  
ALOKAIRU ETA SALMENTA ZERBITZUA



**botika+**  
gandarias uribe  
ortopedia sekzioa

Iñigo de Loiola 9  
20160 Lasarte - Oria  
Tel.: 943 019521  
farmaortopediagaur@gmail.com

LASARTE-ORIAKO  
ORTOPEDIA BAKARRA

FARMAZIA  
PARAFARMAZIA  
ORTOPEDIA

RPS 65/13



## Adituak dio



**Oihana Salazar**  
Psikologoa

U da iritsi zaigu, aurtengoan nahi baino beranduago agian, baina, iritsi, iritsi da. Urte garai honetan gure aldar-tea aldatu egiten da, oporretan egoteak eragin dezake horretan, orokorrean udarak dakarren epeltasunak eta irekitasunak badu gugan eragina. Lasaiago, alaiago, umoretsuago... egoteko baimena hartzen dugula dirudi. Negu gordina atzean utzi eta argiari bidea ireki.

Umorea garrantzitsua eta osasuntsua da gure eraldatze pertsonalean, eta baita egunerokotasunean ere. Bizitzan momentu alai eta tristeak daude, aldapa gorak eta beheak eta guzti honetan umore-senak badu zeresanik. Hala ere, ezin da ukatu barre egitea ona dela. Barreak gertutasuna sortzen du, pertsonen arteko distantziak, gatazkak eta areriotasuna gutxitzen ditu. Umoreak egoerei distantzia batekin begiratzeko parada ematen digu, gauzak beste era batera ebaluatzeko aukera.

Hau guztia garrantzitsua da norbanako nahiz gizartearen partaide moduan garatzeko. Umoresenak barrea esperimintatzeko aukera ematen digu eta horrek plazerra eta onura fisikoak dakartz.

Bada zerbait hoberik lagunartean algara-saio eder bat baino? Aurpegiko muskulua mindu arte edota sabela uzkiak abdomenal-lak ditugula ohartu arte barre egitea baino? Horrek sortzen duen plazerra, ikaragarria da.

Datorkigun Santa Ana parodiak, herriko gertaerei umorez begiratzeko aukera emango digu, eta alderdi ilunenetatik ere gauza positiboak atera daitezkeela ohartarazi!

Uda umoretsua izan!

## Zorion agurrak



**Oier**

Zorionak txapeldun!!  
Zorion handi bat guraso eta Nora partetik!!



**Unax eta Garazi**

Zorionak! 7 muxu potolo aitaxo ta amatxoren partetik!!



**Eneko**

Zorionak zizentxo!!  
Zein handia egiten ari zaren maitia. 6 muxu potolo aitaxo, amatxo eta Marenen partetik.

## Azoka txikia

## Eskaintza inmobiliarioak

- Bi logela alokatzen dira pisu partekatuan. Lasarte-Oriako erdialdean. Pertsona arduratsuak eta ez erretzaileak bilatzen dira. Hilabetero 230 euro eta 240 euroa gehi gastuak. Harremanetarako 686 93 27 14
- Garajea alokatzen da erdigunean: itxia bi autorentzat. Harremanetarako, 686 674 552
- Landetan Leonen 6 plaza mobilhome bat alokatzen da oso prezio onean. 660 057 667
- Landetan, Vieux Boucau-n dagoen "Le Boucanier" urbanizazioan, lau lagunentzako estudioa alokatzen dugu, Uztaialk 20tik Abuztuak 3 bitartean. Astea, 600 euro. Harremanetarako telefonoa 626614111
- Garajea alokatzen da Atsobakarran, Garaikoetxea ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. Harremanetarako

zenbakia: 943 26 54 76 / 659 021 945

## Salerosketak

- Kotxea salgai. Mercedes Vito 4000 eurotan. (Ohea du) Harremanetarako, 630 032 779.

## Lan-eskariak

- Etxeko lanak egiteko, edadeko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetan aritzeko pertsona bat eskaintzen da. Harremanetarako telefonoa, 620 019 449.

## Bestelakoak

- Haur-pultsera bat aurkitu da Hipodromo etorbidean. Norbaiti falta bazaio dei dezala 654 167 077 zenbakira.

## TXINTXARRI astelehenetan

Ohi bezala TXINTXARRIK oporrak hartuko ditu abuztuan baina aurretik ere izan dira aldaketak aldizkariaren maiztasunean. Irakurle fin eta leialak konturatuko zinetenez, astelehenetan bakarrik argitaratu da Txintxarri azken bi asteetan eta hala izango da hilabete osoan. Irailean berriz ere, astelehen eta ostiraletan izango da Txintxarri beraz ez despistatu gero!

San Pedro jaien ale bereziaren ondoren, lau astelehenetan izango duzue Txintxarri eskuartean. Opor giroa nagusi tu da gure herrian eta ekintzaz betetako ikasturtea pasa ostean, Euskararen Maratoia tarteko, lasaitasuna iritsi da. Terraza giroa, kale ekintzez, hondartzaz, mendiaz gozatzeko txanda da. Honek ez du esan nahi erredakzioan lana

lasaitu denik, Txintxarri.info-n egunero-egunero aurki ditzakezue albiste eta eduki berriak, herria bizirik jarraitzen duela noski! Horretaz gain, hilabete honetan hainbat dira TXINTXARRIREN "tripetan" egingo diren aldaketa eta berrikuntzak eta dena ondo bidean, irailean emango dizuegu hauen berri.

Hala ere, ez ahaztu zita garrantzitsua daukagula abuztuko oporrak hartu baino lehen, Santa Ana eguna eta parodia handia. Aurten ere azken honen barreari ezin eutsi izango gara. Lanean da aktore lanetan arituko den herritar koadrila eta ezustekoak aurreratu dituzte gidoiariek.

Esandakoa, segi Txintxarri.info irakurtzen eta jarraitu sare sozialetan oporretan zauden lekutik ere!

## Talaiatik

## Iruditan



60. hamarkadan Santa Ana parodia jendetsua egiten zen. Tomas Fernandezek bilduma

## Bando, bando...

Santa Ana parodia uztailearen 26an egingo da 22:30ean Okendon 21:30ean Buruntzazpi elkartetik herria kalejiran zeharkatuz. Aurretik, San Ana azoka egingo da asteburu honetan eta bertan ohitura bihurtu denez, labana emango zaio sukaldari famatu bati, aurten Pedro Subijaniari. Tomas Fernandezek 1960. urteko irudian, akusatua epaiaren zain ikusten ditugu, orain arte erreta bukatu dute urtero-urtero baina halako zigorra jasoko al dute aurtengoan?

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



**LASARTE ORIA**  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



## Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

## Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

## txintxarri

## Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,  
Maider Azurmendi, Jon Altuna E.  
bintxarri@bintxarri.info

## Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

## Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Jone M.  
Hernandez, Oihana Salazar,  
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

## Informatikoa:

Xabier Amadoz



## UDALA

# LOMCE legea eta IRPH indizeak aztergai

*Udabatzarrera aurkeztutako mozioak aurrera ateratu ziren*

Hainbat gai jorratu ziren asteartean burutu zen uztaileko ohiko Udabatzarrean. Horien artean, kontratu administratiboaren hizkuntzako betebeharrak, hipoteka-kredituei aplikatzeko indizea edo LOMCE legea. Alderdiek ere haien galderak eta eskaerak egiteko tartea izan zuten.



STOP kaleratzeak Gipuzkoa plataformako kidea Udabatzari hitz egiten.

## Nerea EIZAGIRRE

Ohiko Udabatzarra izan zen uztailaren 9an, asteartean, honetan jorrotutako puntu eta mozio guztiak aurrera ateratu ziren. Estitxu Alkorta EAJ-ko bozeramaile ez zen bilkuran egon.

Lehenik, Udalaren kontratu administratiboaren hizkuntza betebeharrak arautzen dituen ordenantzen aldaketa onartu da, LOHP, Bildu, Marisa Zubiri eta EAJren bozei esker.

Boris Nogalesek azaldu zenez, Udaleko ordenantza zaharkitua zegoene eta legearen arabera moldatuko da.

Jarraian, 2013 urteko kreditu eta 2012 urteko likidazioen berri eman zuten Boris Nogalesek, Estitxu Alkortaren idenean.

Honetaz gain, Udaleko ondasun eta eskubiden 2012ko inbentarioan aldaketa onetsi zen aho batez.

## Mozioak

Ondoren, mozioan txanda izan zen. Tarte honetan bi gai

jorratu ziren IRPH indizeak eta LOMCE legea. Hauen aurkako eskaerak aztertu eta biak aurrera ateratu ziren.

PSE-EE-k hipoteka eta kredituek duten IRPH-ren aurkako mozioa aurkeztu bazuen ere, STOP kaleratzeak Gipuzkoako kideek azaldu zuten mozioa eta horretarako, Udabatzara eten egin behar izan dute.

Mozio honen bitartez indize hauen kaltetuek besteak beste, Ekonomia eta Lehiakortasun ministroari indize horiek desagertaraziko dituen behin-behineko erregimena martxan jarri eta euribor +1 indizea jartzea eskatzen diote eta bankuei ez daitezela ministroaren aginduaren zain egon indize alternatibok abian jartzeko.

Bestalde, Landaberri ikastolak aurkeztutako LOMCE-ren inposaketaren aurkako mozioa ere eztabaidatu zen.

Bildu eta EAJ legearen aurka agertu ziren helburua hezkuntza zentralizatzea delako eta Euskadik dituen

eskumenak errespetatzen ez dituelako, ezta euskara ere.

PP-ko Vanessa Velezek azaldu zuten, hizkuntzaren koofizialtasunaren alde lan egingo duela Euskadiko PP taldeak. Gainera, legea Europako beste herri batzuen hezkuntza sistemara hurbiltzeko moldatu dela jakitera eman zuten.

Azkenik, galdera eta erreguen txanda izan da eta PSE-EEK hainbat galdera eta eskaera egin zizkion Udal Gobernuari.

Esate baterako, Ur tasa eta langabetuen bono eta hobarien azterketa edo Michelin II proiektuaren egoera jakin nahi izan zuten talde sozialistak, baita Emakumeen Zentro Zibikoko lehiaketara zenbat enpresa aurkeztu diren ere.

Udal gobernuak kideek teknikoak Otasa eta hobarietan lanean daudela adierazi zuten. Era berean, Michelin enpresarekin beste harremanik ez dela egon jakitera eman zuten. Eta idazkariak Emakumeen Zentro zibikora hiru enpresa aurkeztu direla aipatu zuten.



Alboka Abesbatzako kideak eta bazkideak ederki ibili ziren Kantabria aldean.

## ALBOKA ABESBATZA

### Primerako harrera Comillasen

Lasarte-Oriako Alboka Abesbatzak uztailaren 6 eta 7an Kantabria aldera egin zuen bidaia. Herriko abesbatzak Brumas Norteñas abesbatzarekin egindako elkartrukeari esker, Comillasen antolatzen den San Cristobal abesbatzen topaketan parte hartu zuten, "Los Templarios" eta "Brumas Norteñas" abesbatzekin batera.

Kristina Perez eta Montse Latorrek zuzentzen duten taldeak, besteak beste, Mozarten "Ave Verum corpus", Sorozabalen "Kuku" edo Mozartoren "Sorgin dantza" doinuak eskaini zituen. Ikusleek asko gozatu zuten emanaldiak eta haien txalo zaparradarekin bis bat eskatu zuten. Alboka Abesbatzak "Kantuz", Lesbordosen doinua eskaini zuten.

Abesteaz gain, Santillana del Mar eta Santander ezagutzeko aukera ere izan zuten abesbatzako kide eta bazkideek.

## KULTURA

### Manuel Lekuona kultur-etxeko ordutegia udan

Lasarte-Oriako Udaleko kultura sailak jakin arazi du Manuel Lekuona kultur-etxea eta udal liburutegiak uztailaren udako ordutegia izango duela. Astelehenean goizez 8:00etatik 14:00etara eta arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara izango da irekia. Asteartetik ostiralera berriz, goizez bakarrik joan ahal da, 8:00etatik 14:00etara. Abuztuaren berriz, Manuel Lekuona itxia egongo da.

## BIYAK BAT

### Txangoa eta Parisera bidaia

Biyak Bat elkarteak Hondarribi eta Donibane Lohitzunera irteera antolatu du uztailaren 23an. Goizean, Hondarribian XIX. mendeko Guadalupeko gotorlekua bisitatuko dute. Ostean, Donibane Lohitzunera joango dira. Antolatzaleek aipatu dutenez, asteartean egoten den merkata ikusteko aukera egongo da. Behobian bazkaldu ostean, berriro ere, Hondarribira joango dira eta 19:30ak arte libre izango dute.

Irteeraren prezioa bazkideentzat 35 eurokoa da eta bazkide ez direnek 40 euro ordaindu behar dituzte. Biyak Bat egoitzako bulegoan 10:30etik 12:30era izena eman behar da.

Bestalde, Biyak Bateko kideek urrian Parisera bidaia antolatzeko asmoa dute. Parte hartu nahi duten herritarrei, astelehenean, uztailaren 17, 11:00etan egoitzan egingo duten bilera deitzen dituzte.

## IKASTAROA

### Baratza tailerra

Larunbatean, udalak gaztetxoentzat antolatu dituen kaleko ikastaroen lehen saioa burutu zen Atsokabarreko parkean.

Baratza ikastaroan 8 eta 14 urte arteko herritarrek, besteak beste, loreak ezagutu edo haziak eta aldxak nola eredu ikasi zuten. Hurrengo saioak uztailaren 21ean, igandean izango dira Okendo plazan, Santa Ana azokaren barruan. Hauetan filtroko panpinak eta paperezko txirikordak egingo dira.



**Euskara sustatzeko hitzarmenak.-** Lasarte-Oriako Udalak Ttakun Kultur Elkarteak, ikastetxeetako guraso elkarteekin eta Munterri-AEK euskaltegiarekin urteko hitzarmena sinatu zuten. Honen bitartez, elkarte eta ikastetxeak gure herrian euskara sustatu eta lantzeko ekintzak eta ekimenak antolatuko dituzte. Hitzarmen hauen barruan, kokatzen dira esate baterako, TXINTXARRI aldizkaria, Amaraun Kluba, Solaskide egitasmoa, Udako Txokoak edo ikastetxeetako Irakutzezin, Esazu eta Irrintzi aldizkariak, pertsonaia ezagunen bisitak, eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko "Lagunarteko hizkerarekin jolasean" programa eta "Gu ere bertotan" programa. Aurtengo berrikuntza familia transmisioan oinarrituko den egitasmoa da.

## ELKARTASUNA

### Tapoi bilketa Alcarren

Plastikozko tapoien biketa egiten ari dira Alcar leihoak dutenak. Hauen salmentatik jasotzen den dirua Minbizia duten haurrei laguntzeko ASPANOGI elkarteak bideratzen du.

# Ongi etorri beroa Saharako umeei

■ Aurten bost haur dira Saharatik etorri eta herriko familiekin uda pasako dutenak

**Udalak ongi etorria antolatu zien herrian uda pasako duten Saharako bost haurrei. Hauek goizetan txokotan ari dira parte hartzen eta ostiralean egindako ekitaldi berezian euren kideek ere parte hartu nahi izan zuten. Porrotx pailazoak gonbidatu zuten ere eta haur zein helduek ederki pasa zuten berarekin. Gorka Lizarraga gizarte zerbitzueta buruak egin zien ongi etorria eta denek Saharako bizitza nolakoa den gertuagotik ezagutzeko argazki sorta ikusi zuten. Teslem, Mrabih, Abdalahi, Nawia eta Teslem dira aurtengo uda gure artean pasako dutenak.**

Saharako bost umek pasako dute uda Lasarte-Oriako familiekin "Oporrak Bakean" egitasmoaren baitan. Ekainaren bukaeran iritsi ziren eta uztailean Txokoetan parte hartzen ari dira.

Ostiralean udalak harrera ekitaldi berezia egin zien Gaztelekuko areto nagusian eta bertan senideen, txokoetako lagun eta Porrotx pailazoaren babesa izan zuten. Lizarragak haurrak hartzen dituzten familientzat esker oneko hitzak izan zituen eta egitasmoak haur hauek zuten daukan garrantzia azpimarratu nahi izan zuten.

Porrotx pailazoak ongi etorri beroa eskaini zien haurrei. Pailazoak bere kontu eta magiarekin liluratuta utzi zituen aretoan bildutako haur zein helduak.

## Sahara ezagutu

Txokoetako haurrekin batera eta Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzueta buruak gidatuta, Porrotxen laguntzarekin, Saharako haurrak euren herrialdean nola bizi diren hobetu ezagutzeko asmoz, argazki sorta ikusi zuten. Honekin batera basamortuan bizitzearen zailtasunak azaldu zituen Porrotxek eta ura zenbat zaindu behar duten besteak beste. Eskoletako irudiak ere erakutsi ziren bertako gaztetxoek harridura sortuz.

Teslem, Mrabih, Abdalahi, Nawia eta Teslematzat opariak ere izan ziren, Porrotxek ekarritakoak, udalaren partez baita Txokoetako lagunek prestatutakoak ere. Ongi etorri alai familia argazkiarekin bukatu nahi izan zuten. Honetarako Saharako bande-



Alkate eta zinegotziak Villa Mirentxun egindako agerraldian.

ra ateratu zuten haurrek eta soinean jarrita Gora Sahara! ozen batekin irribarretsu azaldu ziren.

## Ezustekoa

Hala ere, Jaizkibel plazara irten eta bertan zeuden txokoetako haurrak ezusteko batekin. Kartulinekin ikurrina eta Saharako bandera erraldoiak egin zituzten. Txalo artean hartu zituzten bost bisitariak eta musikak lagunduta, festa giroan amaiera eman zioten goizari. Izan ere, haurretako batzuek Okendon Akelarrea egin ostean igo ziren ongi etorria egiteko.



Alkate eta zinegotziak Villa Mirentxun egindako agerraldian.

## Parte hartzea eta akordioak Biduren lanaren oinarri

Bilduko zinegotzien udal gobernu taldeak orain arte eginiko proiektu eta lanak baloratu eta azaltzeko agerraldia egin zuten Okendoan. Pablo Barriok alkatearen hitzetan "ezin balorazio positiboagoa" egiten dute orain arte burututako lanaz. Gainontzeko alderdiekin akordioetara iristeko gaitasuna eta herritarren parte hartzean emandako urratsak nabarmendu zituzten.

"Legegintzaldi hasieran helburu xume baina esanguratsuak jarri genizkion gure buruari zegoen egoera ikusita eta pixkanaka gure erronkak handitzen joan gara". Hitz hauekin hasi zuen Pablo Barriok agerraldia.

Alkateak adierazi zuenez, "gutxiengoan zegoen gobernu izanik, gai izan gara gainerako talde politikoekin akordioetara iristeko, erabaki estrategikoak hartzeko gaitasuna erakutsi dugu, eta, horren ondorioz, gobernatzeko gaitasuna. Politika egiteko beste modu bat ezartzen duten lehenengo urratsak

eman ditugu: gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta herritarrengandik gertu egotea" dira orain arteko lanaren adierazle nagusiak.

Legegintzaldiaren hasieran esandakoa betetzen ari direla esan zuen Barriok eta garrantzia eman zion alderetari, "badago gobernatzeko eta politika egiteko beste modu bat".

## Akordioak

Gaur egun arte, urteroko aurrekontuak onartzeko gaitasuna izan dutela adierazi zuen LOHP eta EAJrekin "era berean, urteroko ordenantza fiskalak onartzeko gai izan gara". Orokorrean akordioei dagokienez, "legegintzaldiaren bi urteetako balorazioa ezin da positiboagoa izan".

Udalerrriaren etorkizuna markatuko duten "erabaki estrategikoak" aipatu nahi izan zituen alkateak. Honen baitan kokatu dituzte 3. sektorearekin eta komertzio txikiarekin hartutako konpromisoa, industria astu-



Okendon egin zuten agerraldia Bilduko zinegotziak.

naren gainbeheraren aurreko alternatiba proposamena, herriko aniztasun kulturalarekin burutzen ari den bidea besteak beste.

Azpimarratu du "legegintzaldiaren hasieran garbi genuen udal politikak ezin zutelarik markatu lau urtetik behin egiten diren hauteskundeak, Udal kudeaketak herritarren etengabeko parte-hartzea eskatzen duela, herritarrek baitira kasu askotan gure herriak dituen beha-

rrak ondoen ezagutzen dituztenak".

Horretarako herritarren Parte-hartze Departamentuaren sorrera "2012ko udaberriaren auzoetan lehenengo bilera erronda egiteari ekin genion, bertan 400 pertsonatik gora bilduz. Orduan emandako hitzari eusteko, hurrengo urteko udaberriaren auzoetara itzuliko gara". Auzoetan burututakoaz gain, beste prozesu batzuk ere aipatu zituen, Tokiko ekono-

miari dagokiona, Mitxelín II proiektua, Inauteriak edo herriko festak antolatzeak, Tximistarreta parkearen erabileraren ingurukoak, kirol diru laguntzen ingurukoak, auzo elkarteekin egindako bilera...

Azkenik normalizazio eta berradiskidetze politikoa aipatu nahi izan zuten Biduko udal ordezkariak, batetik, oroimen historikoa berreskuratzeko lanean dabilen Islada ezkutatuak taldearekin elkar-lanaren garrantziaz mintzatu zen eta bestetik, elkarbizitzaren inguruan hasitako lana Baketik fundazioarekin batera. "Argi daukagu alderdi politikoko guztion konpromisoa eta zintzotasuna eskatzen duen lana dela eta gure aldetik ahaleginak egingo ditugula bide berriari harri guztiak kendu eta denon artean aurrera egiteko".

Agerraldian azaldu moduan herritarrei ere udal gobernuaren balorazioa egin dezaten inkesta bat bidaliko zaie irailetik aurrera.



# Berritasunak XXIX. artisau azokan

► Hogeita hamar artisauetatik hamar dira Lasarte-Oriakoak ► Pedro Subijana sukaldariari egin dio aiztoa Cesar Bozalek ► Okendon jarriko dira artisauak eta Mercero plazan elikagai saltzaileak

**XXIX. Santa Ana Eskulangintza Azokan ikusiko da gauza berri bat edo beste datorren igandean Okendo inguruan: Baratxuri buruak lotuz txirikordak egiten dituen saltzailea, banbuarekin kutxa eta altzariak egiten dituen artisaua eta lanpara artistikoak egiten dituen arotza, besteak beste. Artisauak Okendo plazan jarriko dira, Lasarte-Oriakoak arkupetan eta janari saltzaileak Udaletxe atzeko Antonio Mercero plazan, gutxi gorabehera 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara bitartean. Antton Salsamendi Sendoki elkarteak antolatzaileak adierazi digunez, uztailaren 21eko azokan parte hartuko duten ia 30 artisauetatik 10 dira herrikoak. Cesar Bozal herriko labangileak sukaldeko aiztoa berezi eta ikusgarria egin dio Pedro Subijana sukaldariari.**

Jon ALTUNA IZA

Euskal Herri osoko artisauak beteko dute igandean Okendo inguruan. 30 eskulangile inguru ariko dira euren lana erakusten eta egindako produktuak saltzen, horietatik hamar Lasarte-Oriakoak: Aizto eta labanak egiten dituen Cesar Bozaletaz gain, bitxigintzan aritzen diren, Susane Rebe; Vanessa Redondo eta Vanessa Herce; "Fofito" panpinak eta ezkontzetako burukoak egiten dituzten Koro Ortega eta Arantxa Martin; larrugintzan diharduen Serbando Iglesias; abalorio eta pitxiak sortzen dituen Itziar Mendiluze. Honek ikusleei pitxiak egiten saiatzeko aukera eskainiko die bertan eta gaztetxoentzat paperezko txirikordak eta panpinak egiteko beste bi tailer ere jarriko dira.

Gainera, Emakumeen Zentro Zibikoko eta Ehoziarren Taldeko hainbat lasarteoriatarren lana ere ikusi ahal izango da, igandean, goiz eta arratsaldean, Okendon.

Pedro Subijana omenduko du aurten artisauen azokak. Cesar Bozal herritarrak eskuz egindako labana oparituko dio. Dena den, sukaldari ezagunak bisita laburra egingo du azokara. 11:30etan iritsiko da Okendora, ordu laurden geroago egingo zaio omenaldia eta azokan bira azkarra egin ondoren itzuliko da bere zereginetara.

Cesar Bozal egun hauetan ari da aizto berezia bukatzen. Aiztogilea bera hasi zen Jose Mari Berasarterekin batera sukaldari ezagunei aiztoak oparitzen; Arzak, Berasategi eta De Jorgek jaso dute aurreko urteetan eta aurten Pedro Subijanaren txanda iritsi da.

Sukaldariak atsegin duen aiztoa egiteko Subijanarekin berarekin hitz egin zuen artisauak eta tipula mozteko aizto motza egitea erabaki zuen: "esku handia dauka, baina aizto motzak eta txikiak gustatzen zaizkio eta 20 zentimetroko xafra zabala jarri diot, Suediako 12c27 altzairuarekin eginga. Aspaldian lan guztiak



Euskal Herriko produktoreak iaz bezala Udaletxe atzean jarriko dira. Denetariko jakiak ekarriko dituzte.

altzairu honekin egiten ditut. Kalitate eta malgutasun handikoa da". Heldulekuari dago-kionez, hiru parte izango ditu: "oso kirten profesionala egingo diot erretxinarekin egonkortutako egurrekin. Oparitutako aizto hauek ez dituzte erabiltzen normalean, baina erabilita ere, sukaldariak ez lukete urratzeko inolako arazorik material oso onarekin eginga baitaude" esan digu Cesar Bozalek.

## Eskaintza oparao

Euskal Herri osoko beste hainbat artisauen ondoan izango du bere tokia Bozalek. Zenbait aizto eramango ditu saltzeko Santa Ana azoka honetara eta argitaratu duen azken liburuaren ale batzuk ere bai.

Antton Salsamendi antolatzaileak esan digunez, izango dira nobedadeak azokan: banbuarekin altzari, armairu eta kutxak egiten dituen artisaua esaterako, baita aintzinako erara egurra landuz sehaska,

erloju erraldoi eta beste altzari handi batzuk egiten dituen ere, edo krisiak sortutako artisaua, aroztogia itxi eta lanpara artistikoak egiten hasi zen arotza. "Denetarik egingo da, oitarra, arropa, larru, alpagata, panpin, zeramika eta abar" esan digu Salsamendik.

## Jateko ugari

Bestalde, Euskal Herrian egindako hainbat produktu dastatu eta erosteko aukera ere izango da azokan. Guztira ia 30 produktore etorriko dira: gaztak, kontserbak, opilak, goxoki, erroskila eta pastelak, txokolateak, urdaiazpiko, txorizo, pate eta beste hainbat kutxi salduko dituzte. Ukendu eta xaboi saltzaileak ere jarriko dute postua eta aurtengo berezitasuna baratxuri buruekin txirikordak lotzen dituen saltzailea izango da. Sortak egiteko baratxuriak nola lotzen dituen erakutsiko du Udaletxe atzean, Salsamendi antolatzaileak jakinarazi digunez.

Gainera, gaztetxoentzako bi tailer jarriko dira aurten Okendoko azokan, panpinak eta paperezko txirikordak egiten ikasteko. Ekimen hau Udalak gaztetxoentzat antolatu dituen kaleko ikastaroen barruan kokatzen da.

Sendoki Kultur Batzordeak Udaleko Kultura, Hezkuntza eta Euskara Batzordearekin batera antolatzen duen azoka honetan leku berezia izango dute Lasarte-Oriako artisauak, arkupetan. Hain justu, arkupea izango da artisauak eta jakien saltzaileak banatuko dituen muga: Okendon jarriko dira artisauak eta Mercero plazan janari produktoreak. Hauek aurretik Sagardotegi kalean egoten ziren, iaz, tokiz aldatu ziren arte. Antolatzaileek egokia ikusi dute kokapen berria eta aurten ere hor izango dira.

Azken urteotan egin den bezala, uztaileko azken aurreko igandean, artisauen "xarma" berezia helduko da Okendo plazara.

## Karmen Eguna ospatuko dute astearte honetan Ori auzoan

Karmengo Ama zaindarien eguna ospatuko dute Ori auzoko bizilagunek astearte goizean eta ez da bertan musika zein giro onik faltako. Solano Musika Eskolako trikitilariak goizeko 10:00etan hasita Ori auzo-ko giroa alaitzen ariko dira.

Karmengo kaperan eguerdiko 12:00etan egingo da meza nagusia. Ohikoa denez urtean zehar hildako auzotarrak gogoan izaten dira, eta aurten, bereziki, hil berria den Merte Galdos Biyak Bat zaharren etxeko lehendakariaren omenez emango dute

Juan Luis Murua, Xabier Andonegi eta Ramon Uribe-txeberria herriko apaizak.

Mezatan Erketzeko dantzariak Agurra dantzatuko dute eta Pilar Catalina sopranoak kantatuko du, Amaia Dorronsoro organoan lagun duela.

Bukaeran, denek Karmengo Amari eskainitako Salve ezaguna kantatuko dute.

Meza ostean, urtero bezala, Karmen Egunean Ori auzoko ospakizunera hurbiltzen diren guztiak hamaiketakoa eskainiko diete Plazido Muxika plazan.

**Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!**

## MAITE

**ESTETIKAKO ARETOA**

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

**Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria**

## PALA.-



Anerio eta beroari aurre egin behar izan diete pilotariak finalerdikoetan.

## Santa Ana pala txapelketak baditu finalistak

**B**i aste besterik ez dira falta Santa Ana egunerako eta horregatik, egun hauetan pala txapelketako finalerdietaz gozatzeko aukera izan da Loidi-Barrengo pilotalekuan.

Herritar ugari hurbildu da bi partidak ikustera eta pilotariez gain, beste protagonista bat ere izan da aurtengo finalerdietan, beroa.

Astelehenean lehen norgehiagokan, Bernaitz Odriozola eta Santi Martinek Jon eta Mikel Begiristain izan zituzten aurrez aurre.

Partida hasi zenetik Begiristain anaiek haien nagusitasuna erakutsi zuten eta Mikel aurrelari lanetan ederki ibili zen. Santi eta Bernaitzek ezin izan zuten gauza askorik egin.

Azkenean, lehen partidaren Begiristain anaiek 30-19 gailendu ziren.

Asteartean, berriz, Xabier Arteaga eta Beñat Esnaola eta

Axier Munduate eta Xenki Astiazaranen arteko lehia ikusi zen.

Lehen minutuetan partida berdindu zirudien arren, 13-15 zioazela Esnaola eta Arteagak 10 tanto egin eta errenta lortu zuten.

Saiatu arren, Xenki eta Munduatek ezin izan zieten aurre egin eta 15-30 amaiaitu zen norgehiagoka.

Partida honetan, azpimarragarria izan zen Xabier Arteagaren lana.

### Final Handia

Era honetara, uztailearen 26ko finalean Begiristain anaiek Xabier Arteaga eta Beñat Esnaola izango dituzte aurrez aurre.

Baina aurretik, hirugarren postua izango da jokoan.

Santa Ana pala txapelketako antolatzaileek herritarrek gonbidatzen dituzte final handia ikustera.

## IGERIKETA.-



## Ederki Debako itsasmilan

**B**uruntzaldea IKT-ko igerilariak igerilekuaz gain, itsasoan ere trebeak direla erakutsi dute. Uztailearen 6an, Deban itsasaldien denboraldia hasi zen. Honetan, Leire Martin benjaminira irabazle izan zen.

"Uretan sartzeko benetan itsaso zakarra izan zuten Debara hurbildu ziren igerilariak eta bat baino gehiagok atzera buelta egin behar izan zuten," adierazi digu Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Hala ere, Leire Martinek itsasoari aurre egin eta 11 urtetik beharkean artean lehorreratzten lehena izan zen.

Leirez gain, Mauri Rodriguez, Jose Luis Sevillano, Yoli Pastor eta Juan Vicente Martin masterrak eta Ainhoa Martin eta Paula Sevillano benjaminak izan ziren lehian.

Txiki guztiak proba egiteagatik "ondo merezitako dominaxoa" eskuratu zuten.

## ATLETISMOA/TRIATLOIA.-

# Lehia bizian atleta eta triatletak

## Denboraldi ederra borobiltzen ari dira

**Lasarte-Oriako atletak eta triatletak txapelketaz txapelketa dabilta. LOKEko gazteek denboraldiko azken probetan ari dira lehian, herri lasterketetan dabilzan korrikalariak mendiko probak dituzte batik bat eta triatletek ere denboraldiko azken probei aurre egingo diete udan.**

### NEREA EIZAGIRRE

**L**asarte-Oriako korrikalari eta triatletek ez dute atsedenik hartzen. Aurreko asteburuan, uztaileak 6 eta 7an, LOKEko kadeteak Espainiako txapelketan izan ziren, korrikalariak Añorgako herri krosetan eta triatletak Garaiko triatlloan. Asteburu honetan, berriz, Ehun Miliak eta G2Handiak probetan izan dira herritarrek.

### Espainiako txapelketa

Aipatu legez, Kadete mailako Espainiako txapelketan izan ziren LOKEko Eneritz Busto eta Idoia Olasagasti gazteak eta lan ederra egin zuten biek.

Eneritz Bustok bi probetan parte hartu zuen, 100 m. hesi-lasterketa eta altuera, eta bietan izan zen finalean.

Busto bosgarren izan zen 100 m. hesi-lasterketako finalean eta bai kanporaketan baita finalean ere denbora bera egin zuen, 15sg37. Bere marka hobereenetik gertu.

Altuera proban era lan ona egin zuen Eneritzek. 1,48m., 1,52m. eta 1,59m. altuerak lehen saiakeran gailendu zituen.

Orduan, bere marka hobetzeko aukera izan zuen



LOKEko Eneritz Busto eta Idoia Olasagasti Espainiako txapelketan izan dira.

1,63m.-ra langa igota. Baina ezin izan zuen hau gailendu eta azkenean, zazpigarren izan zen.

Idoia Olasagastik 100 metro lasterketan parte hartu zuen.

Finalerdikoetarako sailkapena lortu zuen 13,00sg-ko denborarekin.

Baina finalerdikoan ezin izan zuen hori gailendu, 13,42sg eta finaletik kanpo geratu zuen.

Oskar Goikoetxea entrenatzaileak azaldu digunez, atleta gazteek haizea izan zuten aurka eta horrek ere markak hobetzea galarazi zuen. "Esate baterako, Eneritzek ez zuen zortetik izan finalean, -3,2-rekin egin zuen lasterka eta horrela, ezin da markarik hobetu".

Hala ere, "bi atleta gazteek Estatuko ranking-ean aurrera egin dute emaitza hauekin, beraz, oso pozik gaude".

### Herri lasterketak

Hau guztiaz gain, lasterketa ugari dago eta gure herritarrek ere bertan aritu dira lehian.

Aurreko astean, uztailearen 6an, Añorga Txikiko I. Herri krosetan izan zen.

6 kilometrotako proba honetan, bi herritar izan ziren podiumean. Raul Gomez Margallo herritarra bigarren izan zen gizonen mailan eta emakumezkoen mailan, Nieves Civicos hirugarren izan zen.

Asteburu honetan, Ehun Miliak eta G2Handiak probetan izan dira sei herritar.

### Triatloia indarrean

Bestalde, triatloiak indarra hartu du Lasarte-Orian. Denboraldi osoan zehar Saiatuz taldeko kideak eta herriko triatletak ederki ibili dira lehian.

Lehengoz asteburuan, Euskadiko txapelketa zen Garaiko 3. Triatloia jokatu zen, Mutriku eta Garaia herriaren artean.

Parte hartzaileek ironman erdia egin zuten: 2 kilometro igerian, 90 kilometro bizikletan eta 21 kilometro korrika.

Lasarte-Oriako Saiatuz taldeko Noemi Montero 5. postuan amaitu zuen emakumeen mailan eta gizonen artean, Jose Ramon Altuna, Trigoi Triatloia taldeko herritarra 20. postuan iritsi zen helmugara.

Honetaz gain, Saiatuz taldeko eta herriko triatletak ekainaren 22an, Lekeition izan ziren eta ekainaren 30ean, Donostiako triatlloan, Onditz oroimenezkoan parte hartu zuten.

Donostian, Antxintxika taldeko Pili Bodegas Gipuzkoako txapeldun izendatua izan zen eta Lekeition, berriz, Imanol Arteaga izan zen herritarren artean azkarrena.



Pili Bodegas Onditz oroimenezko probaren podiumean,

FESTAK.COM

## Agenda

Asteazkena 17, 12:00etan, Isla plazan



### Zoo berezia sortuz

Etoko txikientzat ZooZoom kale antzerkia izango da. Familia osoari zuzendutako kale ikuskizunaz gozatzeko beste era bat proposatzen digu, parte hartzailea, dibertigarria, interaktiboa, harrigarria. ZooZoom ikuskizunean, material xumeak erabiliz eskuz eraikitako animaliaz osatutako parke zoologiko bitxia sortuko dute. Par-taideak erraz, azkar eta irudimenez betetik, jirafa, elefante, karramarro, dinosauro, bihurtuko dira.

### Erakusketa

**JALGI KAFE ANTZOKIAN**  
**Uztailak 16ra arte**

Unai Azkarate bergararraren "Soinuak kolore bihurtzen" margo erakusketa ikusgai.

**Uztailak 18tik 31era**

Shandra Perez Lucero herritarraren "Nire azken obra" margo erakusketaz gozatzeko aukera.



### Santa Ana azoka

**OKENDO PLAZA**

**Igandea 21, egun osoa**

Ohitura den legez, Santa Ana Artisau azoka antolatuko du Sendoki K.E.-k.

### Lasarte-Oria

#### Jaiak

**ORIA AUZOAN**  
**Asteartea 16**

Oria auzoko bizilagunek Karmengo Amaren eguna ospatuko dute. Trikitilariak, meza eta luntxa izango da.



#### Zinea

**OKENDO PLAZA**

**Osteguna 18, 22:00etan**

Udako Zine zikloaren barruan, "El Caba-llero oscuro" filma eskainiko dute, Oken-do zinema taldearen eskutik. Gaztelaniaz.

#### Musika

**ZULO ARETOA**

**Ostirala 19, 00:00etan**

Manchester, rock, 90s eta doinu elektronikoak EG/MR-ren eskutik.

**Larunbata 20, 00:00etan**

Orphidal DJ-ak musika elektroniko eta

bass doinuetan oinarritutako saioa egingo du.

**SAGARDOTEGI KALEAN**

**Larunbata 20, 19:30ean**

N.O.S. Taldeak New Orleans aldeko doinuak ekarriko ditu Udako Kultur Kale Zikloko saioan.

#### Antzerkia

**OKENDO PLAZA**

**Ostirala 19, 22:00etan**

Oihulari clown-en eskutik "Pronostiko erreserbatua" lana ikusiko da "Kale antzerki bultzatuz" ekimenari esker.

#### Tailerrak

**OKENDO PLAZA**

**Larunbata 13, 10:00etatik 13:00etara**

8 eta 14 urte arteko gaztetxoek bi taileretan parte hartu ahaliko dute. Fil-tro panpinak eta paperarekin egindako txirikordak egingo dituzte.

#### Bestelakoa

**LEKUA ZEHAZTU GABE**

**Asteazkena 17, 13:30ean**

"Gurekin gozatu uda berezi honetan egitarau"-ren barruan, Atsobakar egoitzeko egoiliarrek, langile, senide eta bolondresak bazkaria egingo dute.

## Herritarren txokoa

#### Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, uztailaren 26an Lasarte-Oriako Herrira mugimendua kontzentrazioa egingo da 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

#### Galdutako arropa

Sorgin Dantzako entsegutan Landaberri BHI-n jendeak ahaztutako hainbat arropa jaso da. Guztia Ttakuneko bulegoan dago beraz galdu dutenek harrera orduan pasa daitezke hauek jasotzera.

#### Kiroldegiko eta bulegoko Udako ordutegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, uztailaren 1etik aurrera udako ordutegia izango dela indarrean bere kirol-instalazio eta bulegoan.

Kiroldegia astelehenetik ostiralera 7:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita egongo da.

Kirol Gunea, berriz, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:00etara irekiko ditu

ateak, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxita dago.

Bulegoko ordutegia ere aldatu da. Astelehenetik ostiralera, goizez, 9:00etatik 12:30era bakarrik egongo da irekia. Asteburuetan itxia egongo da.

#### Islada Ezkutatuak taldeak testigantzak behar ditu

Maiatzaren 22an 75 urte bete ziren Ezkaba mendian, Iruña inguruan dagoen San Cristobal fuerretik 800 presoren ihesaldia gertatu zela.

Islada Ezkutatuak taldea jakinaren gainean dago presondegia horretan lasarteoriatar bat baino gehiagok jasan behar izan zuela hango bizimodu latza.

Oroimenaren alde lan egiten ari den taldeak dei egiten die presondegia horretan egon ziren senitarteko edo ezagunen bat duten herritarrei haiekin harremanetan jar daitezten. Asmoa kasuak ezagutu eta zerrenda bat osatzea da. Lasarte-Orian denboraldi bat bizitako edo eskualdean bizitako pertsonen testigantzak ere jasoko dituzte.

Honetarako 695 756 565 zenbakira deitu behar dute.

#### Eskutitza

### Ikurriñaren alde, erabakitze eskubidearen alde

Espainiako Gobernadore Zibila den Carlos Urquijok abiarazi duen espagnolismoaren gurutzada aitzaki, herriko jendartearen ikurriñaren aldeko sentimendua kaleratzeko nahia izan duen egitasmo kanpaina burutu dugu.

Pozgarria izan da benetan lehen aldiz kolore eta ideologia ezberdinetako oraingo eta lehengo zinegotziak (HB, ANV, EH, Bildu, EA, EA), IU-EB Berdeak) batzen gaituen horretan elkarrekin ikustea, historikoa esango genuke. Hobetu beharrekoak ere badaude lehenengo aldi guztietan gertatzen den bezala, agerraldia ondoren batzuen artean sortu diren ika-mikak: errepublikarra dela, nazionalista dela, adibidez, ekidin beharra. Deritzogu Euskal Herria helburu duten ekimenean ezkertiarren, errepublikarren, nazionalisten berezitasun eta ideologiak ezin dutela giroaren nahasgarri izan behar, izan ere, egia baita ez garela berdinak eta ez dugula berdin pentsatzen, ez ditugula herri honentzat proiektu berberak defendatzen. Baina utz ditzagun alderdikeria albo

batean, alderdiaz gaindik dauden Herri izaerako aldarrikapenetan.

Pozgarria Lasarte-Oriako Udala Espainiako bandera Udaletzeko bal-koian jartzearen aurka agertzea, Espainiaren desegituraketa islada, Udala estatuaren bandera ofizialaren aurka azaltzea.

Pozgarria elkarte, familia, koadrilla eta norbanakoek ekimen moduan sortu den Blogean: lasarteoriangurei-kurrak.com-en egindako ikurriñaren aldeko argazkiak.

Pozgarria ekainaren 22ko ikurriñaren aldeko ekimena bezalakoak, urtero egin beharrekoak, herri zahar honek bere etorkizuna erabakitze, bere sinboloak erabakitze aukera izan arte. Gora Euskal Herria askatuta!

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Boris Nogales Kultura, Euskara eta Hezkuntza zinegotzia

# “Elkarteen lana babestu behar da”

Udalak herriko elkarten lana erraztu behar duela azpimarratzen du zinegotziak

**Hezkuntza, Kultura eta Euskara zinegotzia da Boris Nogales EAJko zinegotzia. Aste hauetan euskara eta kultura alorreko hitzarmenak sinatuko dira eta berarekin mintzatu gara hauen inguruan. Datozen bi urtetarako erronka nahikoak dituela dio.**

Maider AZURMENDI

**E**uskara, kultura eta hezkuntza zinegotzia da EAJko ordezkaria. Aurreko astean sinatu zituen Euskara alorreko hitzarmenak herriko elkarteekin, asteazkenean berriz, kultura sailekoen txanda izango da.

**Sinatu dira euskara hitzarmenak herriko elkarteekin. Zein izan da finkatutako helburua?**

Euskara herrian sustatzeagatik, AEK, ikastetxeetako guraso elkarteak eta Ttakunekin sinatu dira hitzarmenak. Azken hau da handiena. Programa guztiak datorren ikasturtera begira bermatua izatea bilatu da. Ekimenek udalaren babes ekonomikoa ziurtatuta dute.

**Zer nabarmenduko zenuke?**

Gure konpromisoa diru laguntzen kopurua mantentzea izan da. Hau kontutan hartuta, elkarteek ekintzen zirraborroak aurkeztu dizkigute eta hauekin itxi ditugu hitzarmenak.

Iaz 2012-13 ikasturterako AEK-ren hitzarmenean udal eskalategiaren beka portzentajera berdinu zen. Orain beka sistemen araudi berriarekin, hitzarmenetik atera dira.

**Beharrezkoak dira diru laguntzak?**

Administrazio bakoitzak bere eginkizunak ditu eta udaletxe baten lehentasuna herriko elkarte eta taldeek izan behar dute. Hauek laguntza da gure lehentasuna eta dirua hauetara bideratu behar dugu.

**Hitzarmenek alderdi guztien**

**babesa izan al dute?**

Ez dira aho batez onartu baina ez da kontrako bozkarik egon. Alderdi batzuk abstentzioa erabaki dute baina nire ustez hitzarmenok babesa dute. Aurretik zegoen bidea jarraitu da hitzarmengintzan eta ez litzateke koherentea izango kontra azaltzea. Aberasgarria izan da gainera batzordean sortu diren eztabaidak eta sortutako elkarlanerako aukerak.

**Zergatik hitzarmenak?**

Udalak definitu behar du zergatik egin elkarte batzuekin hitzarmena eta horretarako berezitasun bat bilatzen da. Euskara zerbitzukoie dagokionez, euskararen sustapena dute xede elkarteek.

Programa guztien oinarria da euskara eta herriko elkarte handiena da Ttakun alor honetan. Euskara sustatzeko 20 urte baino gehiago daramatza lanean eta hasieran bezala, udalaren laguntza du. Bestalde, guraso elkarteekin hitzarmenak egiten dira ikasturteko hainbat egitasmo finko ziurtatzeko. AEK-rekin iaz udala eta eskalategiaren arteko harremana sendotu nahi zen eta egitasmo konkretuak gauzatzeko tresnak eman zitzaizkien.

Hitzarmenek amankomuneko puntu bat dute, xede talde berezi bat, gurasoen eta familia arteko transmisiorako programak. Amaraun bidez gauzatzeko du Ttakunek, AEK-k saioak eman eta guraso elkarteek kudeatuko dituzte.

**Zinegotzi lanetan zein da zure helburua?**

Lehenengo helburua izan da



Boris Nogalesek datozen bi urtetarako erronka nahikoak dituela dio.

elkarteek jasotzea udala laguntzeko dagoela, ez trabak jaritzeko. Pertsonalki herritar eta herriko elkarteekin harreman zuzena landu nahi izan dut. Orain arte elkarteekin sekulako lana eginda zegoen baina batez ere kulturari dagokionean, zinegotziarekin egoteko arazoak zeuden. Hori gainditzeko saiatu naiz.

Krisi ekonomiko garai honetan elkarteak babestu behar dira eta kasu batzuetan, herriko kultur elkarte batzuei euren ikuskizunengatik, katxe txiki bat ordaintzea lortu da. Hurrengo pausoa elkarteek parte aktibo izatea litzateke.

Iaz bilerak egin genituen. Datorren ikasturtera begira hau izango da erronka nagusia.

**Kultur etxearen erabileraz hila mika sortu da batzuetan.**

Lehen kultur etxeko areto eta gelen alokairurako prezio publiko garesti bat zegoen jarrita eta apenas alokatzen zen. 2013an tasa horiek murrizteko proposamena egin zen batez ere herriko elkartei begira. Pentsatu zen agian herriko elkarteek interesa izan zezaketela aretoa alokatu eta ikuskizun bat ekartzeko. Sarre-rako dirua eskuratzeko.

Egia da kexak izan direla baina udalbatzarrak gehienegoz onartutako tasak aplikatu dira. Herriko hainbat elkarte aretoa zein dantza eskolako gela erabiltzen dute ikasturtean dohain entseguak egiteko. Aretoa bestelakoetarako eskatu dutenean tasak aplikatu dira.

Badakit tasak aldatzeko proposamen politiko bat lantzen ari direla.

**Kulturako hitzarmenak desberdinak dira?**

Euskararekin alderatuta bai. Hauetan baloratzen dira ere elkartei urtean zehar udaletik eskatzen zaizkien herriarentzako ekitaldiak. Adibidez, Erketzi San Pedrotako emanaldia eskatzen zaio, Albokari jaietako omenaldian kantatzea.

**Zer eskaini behar da Manuel Lekuona betetzeko?**

Kulturaren bezala %8tik %21era igo zen eta nahiz eta partida ekonomikoak mantendu galdu egin dugu kontratatatzeko gaitasuna. Amateurrekin lan egiteko asmoa genuen baina mundu hau profesionalak bezala tratatzen ditu gizarte segurantzak eta udaletxeak arazoak izan ditzake, antzezle bakoitzak ez dauka kontrato bat. Badakigu gertuko udale-

tan isun ekonomikoak izan dituztela.

Hala ere, programazio erakargarria egiten saiatzen gara. 2012an ikusle kopurua nabarmen igo zen orokorrean, 2013an behera egin du berriz. Zergatik? arrazoiak asko izan daitezke, oraindik Donostiara begiratzen da, lasarteoriasarean weba sortu genuen hain zuzen, sarrerako online erosteko aukera izateko etab. Eguraldiak zerikusia izan duela pentsatzen dugu baita krisiak ere.

**Hezkuntzan berriz, eskolako jantokiak hizpide...**

Legealdi hasieratik horiek izan dira gaiak. Helburua jangela eta udal haurreskola zerbitzuak zegokien administrazioek hartzea izan zen. Haurreskola hartuta, jangela konponbidean da.

Hezkuntzako delegatuaren aldaketa lagungarria izan da. Orain diote epe motzean Garaikoetxeak jantoki propioa eduki dezakela. Hau gauzatu litzateke ipar Europan hain ohikoak diren egurrezko eraikin batekin. Landaberri eraikinean berriz, hezkuntza delegazioak ez du datarik jartzeko baina itxaropentsu gaude.

**Bi urte gelditzen zaizkizu.**

Euskara alorrean, duela ia bi urte martxan jarritako udal barruko euskararen erabilera bultzatzeko bidegorriak aurrera egitea nahi dut. Bestalde, orain arteko programa guztiak mantendu eta kulturaren, elkarteek programazioaren parte izatea.

Kultur etxean inbertsioak egitea lortu nahi nuke ere. Manuel Lekuona 20 urte beteko ditu eta zaharra gelditu da. Zinea digitalizatu, audio sistema berri, liburutegiari buelta bat eman beharko genioke. Garaikoetxean jangela martxan ikusi eta Landaberriko gauzatzeko bidean utzi nahi nuke.

## LUR ESTETIKA

Tel. 943 361 793

Uistin kalea, 19  
20160 Lasarte-Oria

**Pedikura 12 €**  
**Hanka osoa 15 €**

**Betilen maskara SEMIPERMANENTE**

- Depilazioak
- Manicura
- Pedicura
- Presoterapia
- Gorputz eta aurpegi tratamenduetan adituak

BERRIA